

Donostia, 2022ko abuztuaren 3a

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI

Aitzole Araneta Zinkunegi Elkarrekin Donostia udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 90. eta 91. artikulua eta hurrengoak oinarri, Arau Proposamen hau aurkezten du **Telefonia mugikorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresei udal jabari publikoa era pribatiboan erabili eta bereziki ustiatzeari dagozkion tasak ezartzea arautzen duen zerga ordenantza aldatzeko.**

JUSTIFIKAZIOA

Gaur egun, udal-jabari publikoko lurzorua, lurpearen edo hegalkinaren erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu berezia zergapetzen dituen tasa bat dago eta telefonia mugikorreko zerbitzuak ematen dituzten enpresei aplikatzen zaie, baldin eta zerbitzu horiek auzokide guztiei edo askori eragiten badiete, eta betiere enpresa horiek sareen titularrak badira.

Tasa hori jasotzen duten enpresak enpresa handiak dira, eta onura handiak lortzen dituzte. Gaur egungo egoera sozioekonomikoan, uste dugu gehien daukatenak direla ekarpen gehien egin behar dutenak. Gainera, ordenantza horren eranskinean ezartzen den oinarritzko tarifa ez da aldatu 2012az geroztik; beraz, oinarritzko tarifa hori % 2 igotzea proposatzen dugu.

Hori dela eta, Donostiako Udalbatzari proposatzen dizkiogu honako ERABAKI hauek:

LEHENA:

Azalpenen zatiaren arabera, ordenantzaren eranskinean ezarritako oinarritzko tarifa % 2 igotzea, honela:

Oinarritzko tarifa telefonia mugikorreko operadore guztien artean banatuta, ustiapen bereziak irauten duen denboraren eta operadore bakoitzari bere merkatu kuota oinarritzat hartuta aplikatzekoa zaion koefiziente espezifikoaren arabera	592.582,38
---	------------

Hau esan behar du:

Oinarrizko tarifa telefonía mugikorreko operadore guztien artean banatuta, ustiapen bereziak irauten duen denboraren eta operadore bakoitzari bere merkatu kuota oinarritzat hartuta aplikatzekoa zaion koefiziente espezifikoaren arabera	604.434,03
--	------------

BIGARRENA:

2023ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean jarriko den erabaki hau izapidetzea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutako prozeduraren arabera. Era berean, erabakia behin-behinekoa izango dela joko da eta erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko bihurtuko dela.



Sinatua: Aitzole Araneta

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea